


ELGOIBAR: FRONTEAREN ERDIAN



Map data: ©2026 Google / Badihardugu Euskara Elkartea

Gerra Zibilean frontea zazpi hilabetez egon zen Elgoibar eta inguruetan. Borroka gogorra eta luzea izan zen eta bi alderdietako tropak baserrietan eta kaleko etxeetan bizi izan zirela batu nahi izan dugu ibilbide honetan.

Besteak beste, non zeuden milizianoak, non nazionalak eta eguneroko bizitzaren nondik norakoak, lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarrituta.



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskara Alkartia

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Giza Eskubideen eta Oinarrizko
Hakuei buruzko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 ANTOLA BASERRIAN 18 SOLDADU BIZITZEN

Lekukoa: Teodora Arakistain

11 senide egon ziren baserrian gerra denboran, Eibarkoak ere bertara etorri zitzaizkien eta. Gero 18 soldadu ere izan zituzten, beren zaldi eta guzti. Bederatzi hilabete egin ostean, Zumarragara joan ziren.



2 SALLOBENTEKO ESKOLAN SOLDADUAK LOTAN

Lekukoa: Juana Txurruka

Gerra hasi zenean, eskolak eten egin ziren. Soldadu frankistak egon ziren Sallobenteko auzo-eskolan. Baserri gainaldean kanoia egon zen, Arratera begira. Arrate aldetik botatzen zituzten kanoikadak Sallobente aldera erortzen ziren.



3 ERREKETEAK HERRIAN LOTAN

Lekukoak: Bittor eta Jose Antonio Arrieta, eta Jose Zuatzubizkar

Tropak herrian sartu zirenean, Díez de Rivera teniente koronelaren bandoa jo zuten. Arrieta anaiei etxean, San Frantzisko kalean, lau erreketek egon ziren lotan.



4 SOLDADU NAZIONALAK HERRIKO ETXEETAN LOTAN

Lekukoak: Pepita eta Rosa Unzueta

Francoren militarrek Azkaratetik jeitsi zirenean, berehala iragarri zuten soldaduek herriko etxeetan lo egingo zutela. Haietako lau, zazpi hilabetez eduki zituzten Trenbide kaleko etxean, jaten eta lotan. Ez zuten ezer ordaintzen.



5 AZKARATETIK HELDU ZIREN NAZIONALAK

Lekukoa: Ramon Maiztegi

Santa Ana kaleko etxetik ikusi zituen nazionalak Azkaratetik behera menditik jaisten. Jendeak beldurrez bizi izan zuen gerra garaia. Aurretik ez zuten inoiz etxerik ixten, baina ordutik aurrera bai. Etxeetara sartzen ziren eta bertan lotan ere geratzen ziren batzuetan.



6 URKITZA BASERRIAN SOLDADUAK 7 HILABETEZ

Lekukoa: Agustina Arrizabalaga

Frontea San Pedron egon zen zazpi hilabetez. Soldaduak hotzak egoten ziren neguan eta baserrira etortzen zitzaizkien jatera. Etxetik bi aldeetako tiro-hotsak entzuten zituzten. Familiak baserrietan elkartzen ziren beldurrez.



KALAMUA MENDIA

Lekukoa: Juanito Arrieta

Frontea gelditu egin zen Kalamuan eta erreketek zeuden bertan. Baserri inguruan, kotxe blindatu bat zegoen errepidea zaintzen "txapelgorriak" pasa ez zitezen. Frontea Kalamuan zegoen bitartean, eurak Markinan egon ziren, 7-9 hilabetez.



BIGOIN BASERRIAN SOLDADUAK BIZITZEN

Lekukoak: Balentin eta Inazio Egaña

Gerra denboran, Balentinek 2 urte zituen eta Inaziok 9. Soldaduak 8 egunean etxera joaten zitzaizkien jatera, baina gero fronteak aurrera egin zuen Urkaregi aldera. Pareko baserri batetik euren baserria bota nahi izan zuten, soldaduak zeudelako bertan; baina eragotzi egin zieten, ume asko bizi zen bertan eta.



testigantzak entzun

